

Esku-diru/gordailu koefizientea

e = 0,25 baldin bada, zenbat diru izango du esku-dirutan eta zenbat gordeko du bankuan?

Erraza da:

$$e = 0,25 = \frac{25 \rightarrow \text{EMP}}{100 \rightarrow \text{G}}$$



125 euro baditu, 25 euro esku-dirutan izango ditu (% 20) eta beste 100 euroak bankuan, gordailu moduan (% 80).

Banku-dirua nola sortzen den: adibidea

- ❶ Kutxa-koefizientea % 10 da ($r = 0,1$) \Rightarrow gordailuen % 10 erreserba moduan mantenduko dituzte.
- ❷ Esku-diru/gordailu koefizientea 0,25 da ($e = 0,25$) \Rightarrow dirutza osoaren % 80 bankuan sartuko du gordailu gisa, eta beste % 20 esku-dirutan izango du.
- ❸ Gizabanakoek dirutza jakin bat jasotzen duten bakoitzean, banku ezberdinetan sartuko dute gordailu moduan

Banku-dirua nola sortzen den: adibidea

1. URRATSA: Mariak ikasketa beka bat jasotzen du, 6.000 €-koa \Rightarrow e koefizientearen arabera, 1.200 € esku-dirutan aterako ditu (% 20) eta gainerakoa (4.800 €) bankuetxean gordeko du.

AKTIBOA	PASIBOA
$\Delta R = 6.000 \text{ €}$	$\Delta G (\text{Maria}) = 6.000 \text{ €}$
$\Delta R = 4.800 \text{ €}$	$\Delta G (\text{Maria}) = 4.800 \text{ €}$

1.200 € ateratzen ditu

Banku-dirua nola sortzen den: adibidea

2. URRATSA:

Banketxe1-k gordailuen % 10 baino ez ditu mantendu behar erreserba moduan (480 €), eta gainerako guztia ($4.800 - 480 = 4.320 \text{ €}$) Joxeri emango dio maileguz, motor bat eros dezan \Rightarrow Joxek Ainarari erosiko dio motorra.

Ainararen bankua B2 da \Rightarrow Ainarak jasotzen duen dirutik (4.320 €), e koefizienteari jarraituz, % 20 (864 €) esku-dirutan aterako du eta beste guztia (3.456 €) bankuan gordeta utziko du.

Banku-dirua nola sortzen den: adibidea

B1		B2	
AKTIBOA	PASIBOA	AKTIBOA	PASIBOA
$\Delta R = 4.800 \text{ €}$ $\Delta Mlg. = 4.320 \text{ €}$ (Joxeri) $\Delta R = 4.800 \text{ €} -$ $4.320 = 480$	$\Delta G (\text{Maria}) = 4.800 \text{ €}$ $\Delta G (\text{Joxe}) = 4.320 \text{ €}$	$\Delta R = 4.320 \text{ €}$ $\Delta R = 3.456 \text{ €}$	$\Delta G (\text{Ainara}) = 4.320 \text{ €}$ $864 \text{ € ateratzen ditu (\% 20)}$ $\Delta G (\text{Ainara}) = 3.456 \text{ €}$

B1-ren eta B2-ren arteko eragiketak (likidazioak) egiten dira bai batak eta bai besteak ere Banku Zentralean dauzkaten gordailuen bidez.

Banku-dirua nola sortzen den: adibidea

3. URRATSA:

B2-k gordailuen % 10 baino ez ditu mantendu behar erreserba moduan (345,6 €), eta gainerako guztia ($3.456 - 345,6 = 3.110,4 \text{ €}$) Ikemii mailegatuko dio, telebista bat eros dezan

⇒ Ikerrek Laurari erosiko dio telebista.

⇒ Lauraren bankua B-3da ⇒ Laurak jasotzen duen dirutik (3.110,4 €), e koefizienteari jarraituz, % 20 (622,08 €) esku-dirutan aterako du eta beste guztia (2.488,32€) bankuan gordeta utziko du.

Banku-dirua nola sortzen den: adibidea

B2		B3	
AKTIBOA	PASIBOA	AKTIBOA	PASIBOA
$\Delta R = 3.456 \text{ €}$ $\Delta Mlg. = 3.110,4 \text{ €}$ (Ikerri) $\Delta R = 3.456 \text{ €} -$ $3.110,4 = 345,6 \text{ €}$	$\Delta G (\text{Ainara}) = 3.456 \text{ €}$ $\Delta G (\text{Iker}) = 3.110,4 \text{ €}$	$\Delta R = 3.110,4 \text{ €}$ $\Delta R = 2.488,32 \text{ €}$	$\Delta G (\text{Laura}) = 3.110,4 \text{ €}$ 622,08 € ateratzen ditu (% 20) $\Delta G (\text{Laura}) = 2.488,32 \text{ €}$

Prozesu hori behin eta berriro errepikatzen da, harik eta banku guztiek beren erreserbak kutxa-koefizientearen arabera doitu arte, hau da, erreserba berriak gordailu berrien % 10 baino ez izatera iristen diren arte.

Banku-dirua nola sortzen den: adibidea

NOLA HAZI DA DIRU KANTITATEA?

1. URRATSA: Ez da banku-dirurik sortzen \Rightarrow

6.000 €

2. URRATSA: Banku-dirua sortzen da, 4.320 €-ko balioa duena

$6.000 + 4320 = 10.320 \text{ €}$

4.320 € (B1k Joxeri emandako mailegua)

3. URRATSA: Banku-dirua sortzen da, 3110,4 €-ko balioa duena

$10.320 \text{ €} + 3.110,4 \text{ €} = 13.430,4 \text{ €}$

$13.430,4 \text{ €} - 6.000 \text{ €} = 7.430,4$ (B1k Joxeri eta B2k Ikerri emandako maileguak)